



A K T A

Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren **KUADRILLA BATZARRAK** eginiko **premiazko ezohiko bilerarena**.

2022ko AZAROAREN 28a

Laudioko udaletxeko bilkura-aretoan, 13:38an, bilkura hasi da, eta **Kuadrillako presidentea den Encina Castresana Astarloa andrea** izan da buru. **Lehenengo deialdian** ondoren aipatzen diren batzarkide jaunak/andreak elkartu dira **presazko ezohiko bilkuran** eta behin-behineko idazkariaren lanak Gianfranco Ghiro Alonso sinatzaile jaunak egin ditu.

Batzarkide jaun/andre hauek bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)
Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)
Monserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)
Irene ITURBE ERRASTI (EH-BILDU)
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH-BILDU)
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH-BILDU)
Jon BERGANZA URRUELA (EH-BILDU)
Nagore GOMARA PICAZA (EH-BILDU)
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Lehenengo gaia eztabaidatzeko honako hauek bertaratu dira:

Álvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)



Honako batzarkide hauek ez dira bertaratu eta bertaratu ezina adierazi dute:
Ixone SARATXAGA IBARRETXE (EAJ-PNV)
Aitor BURGOA MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH-BILDU)
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH-BILDU)
Joseba VIVANCO RETES (EH-BILDU)
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH-BILDU)

Barrios eta Tato jaunak eta González andreak bilkura 13:47an utzi dute, lehenengo puntua eztabaidatzen ari zenean, presa onestea bozkatu baino lehen.

Kuadrillako presidente andreak, lehenengo deialdian, 13:38an, bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma dela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauaren 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.c) artikuluari lotuta. Presidente jaunak hasteko agindua eman du eguneko aztergaien zerrendaren arabera.

Ezohiko eta presazko bilkurarako deialdia egin denez, lehenik eta behin bilkuraren presa onetsi behar da.

1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, BILKURAREN PRESA

Presidente andreak González andreari eskertu dio ohiko batzarrerako deialdiaren epeetan izandako akatsaren oharra eta azaldu du azaroaren 28an egin behar zen ohiko Kuadrillaren Batzarrerako deialdiaren epean akats nabarmena zegoenez, bertan behera utzi dela.

Azaroan batzordeetan irizpena izan duten zenbait erabaki onetsi behar dira eta denboran eta epearen barruan batzarreko bi taldek aurkeztu duten errekurtoa erantzutea ezinbestekoa da. Horrek ere bere irizpena du.

2022-26 denboraldirako neguko bideen hitzarmena onetsi behar da herritarrei zerbitzu egokia emateko. Hitzarmena Arabako Foru Aldundiak bidali du azaroaren 18an.

Ohiko batzarra egin behar da, baina behar bezala egiteko ez dago denborarik.

Batzarkideek bazekiten eta aurrez ikusia zegoen azaroaren 28an, 13:30ean, Laudioko bilkura-aretoan osoko bilkura egitea. Presazko ezohiko bilkura honetarako deialdia bertan behera utzitako ohikoa baino bost minutu geroago egin da, beraz, batzarkideei ez zaie eragozpenik, ez eta data aldatzeagatik gastu gehigarrikerik ere sortzen.



Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ talde politiko batzarkidearen kide den neurrian) galdetu du eskaerak eta galderak egin ahal izango diren eta aktan jasoko diren. Presidente andreak erantzun dio ezohiko batzarra izan arren, eskaerak eta galderak onetsiko direla, ohiko batzarra ordeztzen duelako.

Tato Eguren jaunak (Okondo Aurrera talde politiko batzarkidearen bozeramailea den neurrian) azaldu du presaren aurka bozkatuko duela.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politiko batzarkidearen bozeramailea den neurrian) azaldu du ez zaiola bidezkoa iruditzen egiten ari dena. Akats bat errepikatzen ari da, eta ez dute partaide izan nahi, beraz, bilkura utziko dutela iragarri du.

Iturbe Errasti andreak (EH-BILDU talde politiko batzarkidearen ordezkoko bozeramailea den neurrian) azaldu du bere taldeak aurka bozkatuko duela jarraitu den prozedura dela eta.

Añibarro Maestre jaunak (EAJ/PNV talde politiko batzarkidearen kide den neurrian) azaldu du, lehenik eta behin, giza akats bat gertatu dela eta modu honetan zuzendu nahi dela. Horrez gain, eskaerak eta galderak zehazten badira, ez dago arazorik.

Barrios Medina jaunak (OMNIA talde politiko batzarkidearen bozeramailea den neurrian) azaldu du aldaketa hau egin dela González García andreak presidente andreari deialdirako epeetan akatsa jakinarazi ziolako. Baina, gainera, presidente andreari adierazi zion bere taldeak ohiko bilkuran normaltasunez parte hartuko zuela, deialdirako epeak ez betetzearen aurka jardun gabe.

Alamillo Udatea jaunak (EAJ/PNV talde politiko batzarkidearen bozeramailea den neurrian) erantzun du bileraren aurka edozein interesdunek egin dezakeela eta edozein errekurtsio saihesteko aldaketa egin dela.

Barrios Medina jaunak (OMNIA Biltzarkide Talde Politikoko bozeramailea den aldetik) erantzun du uste dutela aldaketak Batzordearen erabakien aurkako helegiteak saihesteko egitea, eta hori ezaguna zela 2020ko Uztaileko Batzarrak Kuadrilla kondenatu zuen epaiarekin.

Bozkatu baino lehen Okondo Aurrera eta OMNIA talde batzarkideetako kideek bilkura utzi dute.

Gaiari buruz ez da gehiago eztabaidatu, eta bozkatu egin da. Aldeko hamabost botorekin (EAJ/PNV taldearen hamabi, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldearen bi eta AIARA BATUZ taldearen bat) eta aurkako bostekin (EH-BILDU), gehiengoz, **ERABAKI DA** honako **AKORDIO** hau hartzea:

LEHENENGOA.- Onestea azaroaren 28ko ezohiko Kuadrillako batzarraren presa, azaroan zenbait erabaki hartu behar baitira, batzordeetan irizpenak egin ostean, eta ezinezkoa baita azaroan epeen barruan ohiko bilkurarako deialdia egitea.



2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA

Bilkura honetako deialdiarekin batera, 2022ko urriaren 6an egindako azkeneko bilkurako aktaren zirriborroa atxiki da aztertzeko, eta ez zaio alegaziorik egin.

Aldeko 19 botorekin (EAJ-PNV taldearen 12 boto, EH-BILDU taldearen 5 boto, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldearen 2 boto) eta abstentzio batekin (AIARA BATUZ), gehiengoz, ERABAKI DA: Urriaren 6ko bilkurako akta onestea.

3.- AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Presidente andreak jakinarazi du Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren GIZARTE GAIAK, BERDINTASUNA ETA KULTURA INFORMAZIO BATZORDEAK 2022ko urriaren 19an, 14:00etan, egindako ohiko bilkuran aho batez honako proposamen hau onetsi dela:

AZAROAREN 25eko ADIERAZPENA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA

Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan

Azaroaren 25ean, emakumeek espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta gozatzeko duten eskubidea aldarrikatu nahi dugu, erabateko herritartasun-eskubideak baliatzeko berme gisa, eta, azken batean, beren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapenaren berme gisa.

Horrela, azaroaren 25 hau indarkeria matxistaren hainbat alderdi identifikatzen jarraitzeko eguna izango da, gizartean normalizatuta dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukituak, hitz lizunak, mezu eta adierazpen sexistak, janzkera kontrolatzea, sare sozialen eta lagunen erabilera, espazio publikoa libreki okupatzeko zailtasunak (eskolako patioak, jolasguneak, parkeak) edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurka zuzenean doazen erabaki administratiboak. Bigarren fasean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak daude, eta, kasurik muturrekoenean, erailketak.

Aurrerapenak lortu dira, emakume askok, mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek banaka egindako ahalegin gogorraren bidez, espazio publiko eta pribatuaren banaketan gizonen



eta emakumeen artean dikotomia gainditzeko. Hala ere, oraindik ere alde handiak daude bizitza publikoan parte hartzeko, gozatzeko eta gure hirietako eta herrietako kaleak bereganatzeko erabileran.

Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu-indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakumeak eta neskatilak espazio publikoan sufritzen ari dira.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoaren okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.

Kontuan izan behar dugu erreklamaturako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta nesken interesen nahien eta beharren arabera.

Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

“Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak” Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, espazio publiko seguruak eta ahalduzkoak sustatzen ditu emakumeentzat eta neskeentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri Itunaren ildotik.

Esparru horretan, Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

1. Indarkeria digitala prebenitzeko eta erantzuteko estrategiak landuko ditu, indarkeria matxisten egungo egoeraren analisiari erantzuteko.
2. Mugimendu feministarekin eta jai-batzordeekin batera, jai-giroan ematen diren erasoei erantzuteko eta hauek prebenitzeko protokoloak egiteko konpromisoa hartzen du.
3. Gazte eta adineko emakumeentzako ahalduzko-tailerrak antolatuko ditu, hainbat gai lantzeko, hala nola bikote-harremanak, harreman afektibo-sexualak, maitasun erromantikoa, sexualitate askeak, etab. Halaber, autodefentsa feministako tailer iraunkorrak antolatzen jarraituko dira 10 urtetik gorako neska eta nerabeentzat.
4. Konpromisoa hartzen du mutilentzako eta gizonentzako tailerrak abian jartzeko, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak eta berdintasuna lantzeko gaiak aztertze. Horretarako, konpromisoa hartzen du programa zehatzak aktibatze.
5. Indarkeria matxistari erantzuteko baliabideei buruzko informazioa zabaltzea, hala nola 900840111 telefono-baliabideari buruzkoa, edozein erabaki hartu aurretik emakumeek informazio guztia izan dezaten. Informazio hori hedabide guztietan zabalduko da, baita udal-aldizkarietan ere.
6. Jaietako kanpainetan, konpromisoa hartzen du fokua jartzeko erasotzaileengan, eta ez hainbeste emakumeengan, arazoa beraiek direla argi gera dadin.



7. Sakon ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu aitzak, tokiko politikak diseinatzean eta garatzean kontuan hartzeko.
8. Espazio publikoetan sexu-indarkeria prebenitzeko eta hari erantzuteko lege eta politika integralen inplementazio eraginkorra bultzatzea, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitatearen mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatuz.
9. Jarreretan eta jokabideetan aldaketak bultzatzea emakumeek eta neskek indarkeriarik gabeko espazioen gozaten dituzten eskubideak bermatze aldera; hala, espazio publikoetan errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatuko dira.
10. Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan benetako eta hautemandako segurtasunean, hiri-plangintzan genero-ikuspegia ziurtatuz, emakumeen beharrak kontuan har daitezten.
11. Indartzea Berdinsarea tokiko jardunbide sare gisa, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutzen trukea errazteko, hiri eta herri seguruak eta inklusiboak lortzeko emakumeentzat eta nesKentzat.
12. Lankidetzan aritzea beste erakunde eta administrazio batzuekin, Emakunderekin eta foru-aldundiekin, besteak beste, bai eta ehun sozial eta feministarekin ere, emakumeek eta neskek espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko aukera izan dezaten.

Amaitzeko, dei egiten diegu herritarrei azaroaren 25eko kanpainaren barruan antolatutako ekintza guztietan parte har dezaten.

4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, OMNIA ETA AIARA BATUZ TALDE BATZARKIDEEK LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEAREN AURKA AURKEZTUTAKO ERREKURTZOAREKIKO ERANTZUNA

Presidente andreak jakinarazi du PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU ZEIN AUTONOMIA ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAN INFORMAZIO BATZORDEAK azaroaren 22an egindako bilkuran aldeko lau botorekin (EAJ/PNV taldearen hiru eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldearen bat) eta hiru abstentziorekin (EH-BILDU taldearen bat, OKONDO AURRERA taldearen bat eta AIARA BATUZ taldearen bat) ERABAKI ZUELA honako IRIZPEN hau:

IKUSI DA aztergaien zerrendako bigarren puntuan urriaren 6an Kuadrillako Batzarrak hartutako erabakia.

IKUSI DA OMNIA eta Aiara Batuz talde batzarkideek azaroaren 7an jarritako berraztertze errekurtsoa (sarera-zenbakia: 707).

IKUSI DA behin-behineko idazkariaren eta Jon Anda aholkulari juridikoaren txostena 1035 22/1/S02.02.01.08 espedientearen barruan.



HONAKO HAU ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Txosten juridikoan zehazten denaren ildotik, ezestea bigarren eskaera: *“Hori baiestea eta zuzenbidearekin bat ez datorrela aitortzea; hala, proposamena aldatu nahi da gutxienez arkitektoaren eta/edo aparejadorearen lanpostu batean nahitaezkotasuna bermatzeko. Helburua da Hirigintza bezalako gizarte izaera duen administrazio-unitatean Kuadrillako biztanleen hizkuntza-eskubideak bermatzea”*.

BIGARRENA.- Txosten juridikoan zehazten denaren ildotik, ezestea hirugarren eskaera: *“Eta modu ordezkatzailean, hori deuseztat jotzea erabakia akastuna deuseza izateagatik. Erabakitze-organoen borondatea adierazteko funtsezko elementuak ez daude, hala nola hizkuntza-politikari buruzko txosten OSOA, beraz, jarduketan atzera egingo da, txostenak osatuko dira eta errekursoan alegatutako arrazoien bidetik proposamena aldatuko da”*.

HIRUGARRENA.- Txosten juridikoan zehazten denaren ildotik, ezestea *“oposizioaren oinarritzko eskubideak eta partaidetza politikoaren funtsezko eskubideak urratu direla, horien deuseztasuna aitortu behar dela, erabaki horietan oinarritutako egintza guztiak eta dagozkien gainerako lege-ondorioak ondorerik gabe uzteko jarduketa guztiak egin behar direla”*.

LAUGARRENA.- Ezestea egikaritzea eteteko eskaera txosten juridikoak zehaztutakoarekin bat etorriz.

BOSGARRENA.- Berraztertze erabakiari dagokionez, erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta egintza honek administrazio-bidea amaitzen duela adieraztea.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ talde politiko batzarkidearen kidea den neurrian) berriz errepikatu nahi du dagoeneko batzordean esan zuena, hain zuzen ere, sindikatuekin izandako bileran langileek ez zutela informazio guztia. Ez da hizkuntza-eskakizunaz bakarrik hitz egin, hirigintzaren arloetan Aiara beste behar batzuk baitaude. Nahiz eta udalei ez zaien eskaera formalik egin, helbide elektronikoz eskatu zaie hirigintzaren arloan beharrak zehaztu ditzaten. Gaur egun posta elektronikoz horiek bidali dira eta Aiara eta Artziniegako Udalak beren beharrak jakinarazi dizkiote Kuadrillari, baina onetsitako langileen zerrendan ez dira islatzen, hortaz, ez ditu benetako beharrak betetzen. Aurka bozkatu du, bere ustez bederatzigarren orrialdean akats bat dagoelako.

Romero Campos jaunak (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politiko batzarkidearen bozeramailea den neurrian) azaldu du hartzailea argi eta garbi zehazten ez duen errekurtoa bozkatuko dela, amaieran azaldutakoaren arabera, Laudioko Udaleko Osoko Bilkurari eskatzen baitzaio.

Gaiari buruz ez da gehiago eztabaidatu, eta bozkatu egin da. Aldeko hamalau botorekin (EAJ/PNV taldearen hamabi eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldearen



bi), bost abstentziorekin (EH-BILDU) eta aurkako batekin (AIARA BATUZ), gehiengoz, **ERABAKI DA** honako **ERABAKI** hau hartzea:

IKUSI DA aztergaien zerrendako bigarren puntuan urriaren 6an Kuadrillako Batzarrak hartutako erabakia.

IKUSI DA OMNIA eta Aiara Batuz talde batzarkideek azaroaren 7an jarritako berraztertze errekurtsoa (sarera-zenbakia: 707).

IKUSI DA behin-behineko idazkariaren eta Jon Anda aholkulari juridikoaren txostena 1035 22/1/S02.02.01.08 espedientearen barruan.

HONAKO HAU ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Txosten juridikoan zehazten denaren ildotik, ezatea bigarren eskaera: *“Hori baiestea eta zuzenbidearekin bat ez datorrela aitortzea; hala, proposamena aldatu nahi da gutxienez arkitektoaren eta/edo aparejadorearen lanpostu batean nahitaezkotasuna bermatzeko. Helburua da Hirigintza bezalako gizarte izaera duen administrazio-unitatean Kuadrillako biztanleen hizkuntza-eskubideak bermatzea”*.

BIGARRENA.- Txosten juridikoan zehazten denaren ildotik, ezatea hirugarren eskaera: *“Eta modu ordezkatzailean, hori deuseztat jotzea erabakia akastuna deuseza izateagatik. Erabakitze-organoen borondatea adierazteko funtsezko elementuak ez daude, hala nola hizkuntza-politikari buruzko txosten OSOA, beraz, jarduketan atzera egingo da, txostenak osatuko dira eta errekurtsoan alegatutako arrazoien bidetik proposamena aldatuko da”*.

HIRUGARRENA.- Txosten juridikoan zehazten denaren ildotik, ezatea *“oposizioaren oinarrizko eskubideak eta partaidetza politikoaren funtsezko eskubideak urratu direla, horien deuseztasuna aitortu behar dela, erabaki horietan oinarritutako egintza guztiak eta dagozkien gainerako lege-ondorioak ondorerik gabe uzteko jarduketa guztiak egin behar direla”*.

LAUGARRENA.- Ezatea egikaritzea eteteko eskaera txosten juridikoak zehaztutakoarekin bat etorriz.

BOSGARRENA.- Berraztertze erabakiari dagokionez, erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta egintza honek administrazio-bidea amaitzen duela adieraztea.

5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, BEHIN-BEHINEKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUETAKO KUDEAKETAREN AGINDUA ARABAKO FORU ALDUNDIARI EMATEA, ABENDUAREN 28ko 20/2021 LEGEA APLIKA DADIN



Presidente andreak jakinarazi du kudeatzeko aginduari buruz behin-behineko idazkariak egindako txostena erantsi dela **V. ERANSKINA** gisa, eta Arabako Foru Aldundiak agindu horren inguruan onetsi duen hitzarmena **VI. ERANSKINA** gisa gehitu dela.

PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU ZEIN AUTONOMIA ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAK INFORMAZIO BATZORDEAK azaroaren 22an egindako bilkuran ERABAKI ZUEN honako IRIZPEN hau:

IKUSI DA 2022. urteko ezohiko enplegu publikoaren deialdia, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko.

IKUSI DA Kuadrillak dituen baliabideak eta hautaketa-epaimahaiak osatzeko ahala.

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiak egindako proposamena, enplegua egonkortzeko prozesuetako kudeaketa egitea agindu dakiola.

HONAKO HAU ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onestea Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena lehenengoak bigarrenari emandako agindua kudeatzeko; agindu horren arabera, lehiaketa-sistemaren bidez egonkortze-prozesuak gauzatuko dira, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak aplikatzearen ondorioz.

BIGARRENA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea agindu hori gauzatzeko beharrezkoak izan litezkeen izapide guztiak egiteko.

Gaiari buruz ez da gehiago eztabaidatu, eta bozkatu egin da. Aldeko hemeretzi botorekin (EAJ/PNV taldearen hamabi, EH-BILDU taldearen bost eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldearen bi) eta abstentzio batekin (AIARA BATUZ), gehiengoz, **ERABAKI DA** honako **AKORDIO** hau hartzea:

IKUSI DA 2022 urteko ezohiko enplegu publikoaren deialdia, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko.

IKUSI DA Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillak dituen baliabideak eta hautaketa-epaimahaiak osatzeko ahala.

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiak egindako proposamena, enplegua egonkortzeko prozesuetako kudeaketa egitea agindu dakiola.

HONAKO HAU ERABAKI DA:



LEHENENGOA.- Onestea Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena lehenengoak bigarrenari emandako agindua kudeatzeko; agindu horren arabera, lehiaketa-sistemaren bidez egonkortze-prozesuak gauzatuko dira, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarriak aplikatzearen ondorioz.

BIGARRENA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea agindu hori gauzatzeko beharrezkoak izan litezkeen izapide guztiak egiteko.

6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, CUADRILLA DE AYALA-AIARAKO KUADRILLAK DEITUTAKO AZTERKETA EDO BESTE HAUTAPROBAK EGITEKO ESKUBIDEAGATIKO TASAREN ORDENANTZA

Presidente andreak jakinarazi du deialdiari tasak kalkulatzeko dituen txosten ekonomikoa erantsi zaiola **VII. ERANSKINA** gisa, eta tasen ordenantza **VIII. ERANSKINA** modura.

PRESIDENTETZA, ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA, FUNTZIO PUBLIKOA, KONTZEJUAK, FORU ZEIN AUTONOMIA ADMINISTRAZIO ETA BESTELAKO ORGANISMOEN ARTEKO HARREMANAK, OBRAK ETA ZERBITZUAN INFORMAZIO BATZORDEAK azaroaren 22an egindako bilkuran aldeko sei botorekin (EAJ/PNV taldearen hiru, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK taldearen bat, OKONDO AURRERA taldearen bat eta AIARA BATUZ taldearen bat) eta abstentzio batekin (EH-BILDU taldea) ERABAKI ZUEN honako IRIZPEN hau:

IKUSI DA 2022 urteko ezohiko enplegu publikoaren deialdia, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko.

IKUSI DIRA Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillak dituen baliabideak eta hautaketa-prozesuaren gastuak.

HONAKO HAU ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onestea Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillak deitutako azterketa edo beste hautaprobak egiteko eskubideagatiko tasaren ordenantza.

BIGARRENA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea agindu hori gauzatzeko beharrezkoak izan litezkeen izapide guztiak egiteko.

Gaiari buruz ez da gehiago eztabaidatu, eta bozkatu egin da. Gehiengoz, **ERABAKI DA** honako **AKORDIO** hau hartzea:



IKUSI DA 2022 urteko ezohiko enplegu publikoaren deialdia, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko.

IKUSI DIRA Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillak dituen baliabideak eta hautaketa-prozesuaren gastuak.

HONAKO HAU ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onestea Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillak deitutako azterketa edo beste hautaprobak egiteko eskubideagatikotasaren ordenantza.

BIGARRENA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea agindu hori gauzatzeko beharrezkoak izan litezkeen izapide guztiak egiteko.

7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2022-26 NEGUKO BIDEZAINZAREN HITZARMENA

Presidente andreak jakinarazi du AFak neguko bidezaintza-lanak egiteko hitzarmenaren proposamena igorri duela, eta deialdian erantsi dela **IX. ERANSKINA** gisa.

Aurreko hitzarmenarekin alderatuz, hitzarmen honetan egin den aldaketa nagusia da lanegatik orduko prezioa % 14,30 igotzen dela, aktibatzen ez den hilabete bakoitzeko 60 euro ordaintzeaz gain (BEZa kanpo), gehienez, kanpaina bakoitzeko 300 euro arte (BEZa kanpo). Gainera, aktibazio-aldi bakoitzean 2 ordu ordainduko dira “muntaketa eta desmuntaketa” kontzeptuarekin, eta horiek egiaz erabilitako lan-denborari erantsiko zaizkio.

Honako akordio hau hartzea proposatu da:

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiarekin lan egiteko beharra, neguko bidezaintza-lanak gauzatzeko aldera.

HONAKO HAU ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onestea Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena neguko bidezaintza-lanak gauzatzeko.

BIGARRENA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea agindu hori gauzatzeko beharrezkoak izan litezkeen izapide guztiak egiteko.

Romero Campos jaunak (SOCIALISTAS VASCOS-EUSKO SOZIALISTAK talde politiko batzarkidearen bozeramailea den neurrian) adierazi du azpimarratu nahi duela Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eta Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren artean hartutako erabakiaren garrantzia.



Gaiari buruz ez da gehiago eztabaidatu, eta bozkatu egin da. Gehiengoz, **ERABAKI DA** honako **AKORDIO** hau hartzea:

IKUSI DA Arabako Foru Aldundiarekin lan egiteko beharra, neguko bidezaintza-lanak gauzatze aldera.

HONAKO HAU ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Onestea Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena neguko bidezaintza-lanak gauzatzeko.

BIGARRENA.- Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako presidenteari ahalmena ematea agindu hori gauzatzeko beharrezkoak izan litezkeen izapide guztiak egiteko.

8.- MARIO ORTIZ PANIEGOREN ESKEARI BURUZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO LAN-ARLOKO SALAK EMANDAKO EPAIAREN KONTU EMATEA

Presidente andreak azaldu du parte eman zaiola Kuadrillako aseguruari, eta lanean egon den epe horretako egunei buruzko argibideak eskatu zaizkiola, jarduera ekonomikoetan alta emanda zegoelako.

9.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN KONTU EMATEA

Presidente andreak azken bilkuratik onetsitako Presidentetza Dekretuen kontu eman du; honako hauek dira:

64/2022 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 14koa, 1. hiruhilekoko gastu orokorren eta zerbitzuen eskaera.

65/2022 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 14koa, hiri-hondakin solidoetarako 4. hiruhilekoko ekarpenak.

66/2022 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 14koa, hiri-hondakin solidoak luzatzeko kredituak gaitzea.

67/2022 PRESIDENTETZA DEKRETUA, urriaren 27koa, urriko nomina.

68/2022 PRESIDENTETZA DEKRETUA, azaroaren 8koa, 21-22 eskualdeko enplegu-plana likidatzea.

69/2022 PRESIDENTETZA DEKRETUA, azaroaren 25ekoa, lehiaketaren bidez egonkortzeko enplegu-eskaintzaren deialdiaren oinarriak onestea.

ESKAERAK ETA GALDERAK



Presidente andreak adierazi du, bileraren hasieran adierazi den bezala, nahiz eta gairerrendan ez sartu, eskaerak eta galderak egiteko txanda irekitzen dela.

Parro Uzquiano andreak (AIARA BATUZ talde politiko batzarkidearen kidea den neurrian) adierazi nahi du horrela lan egitea oso korapilatsua dela: deialdiak egin, bertan behera utzi, deialdi berriak... Kuadrillak balioa galtzen du kontu horiekin eta egiten den lana zorrotza izan behar da. Espero du maiatzeko bileran, baldin badago, gauzak ondo egitea.

Iturbe Errasti andreak (EH-BILDU talde politiko batzarkidearen ordezkotako bozeramailea den neurrian) adierazi du ados dagoela Aiar Batuz taldeak esandakoarekin, eta azaldu nahi du Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren sare sozialetan argitaratzen diren post-ak berraztertuz ohartarazi dela azken hilabeteetan (2022ko uztailaren 7tik orain arte) 31 argitalpen egin direla. Horietatik 18 Kuadrillaren kontuekin lotuta daude (tresna handien bilketa, tailerrak...). Geratzen diren 13ak Kuadrillako presidentea Batzar Nagusietara joateari, sariak banatzeari, eta abarri buruzkoak dira. Ez dute uste egokia denik Kuadrillak jarduera batean parte hartzea, bertaratzea edo antolatzea sustatu ordez, lehenik eta behin presidentea bertaratu dela aipatzea. Ez dute nahi horrela jarraitzea, uste dutelako ez dela ez egokia ezta bidezkoa ere. Adierazten dute presidentearen "txangoen" aldean, Kuadrillak gai garrantzitsu eta interesgarri asko dituela sareetan partekatzeke. Adibide gisa Aiaraldeko Berdintasun Topaketari buruzko argitalpen bat aipatzen du.

Presidente andreak erantzun dio berrikusiko duela, baina argitalpen guztiak Kuadrilla ordezkatu duen ekitalditakoak direla, eta akatsen bat egon denean zuzendu dela.

Iturbe Errasti andreak (EH-BILDU talde politiko batzarkidearen ordezkotako bozeramailea den neurrian) adierazi du egia dela argitalpen batean akats bat antzeman, jakinarazi eta berehala zuzendu zela. Berriz errepikatu du ez dela ari Kuadrillak parte hartzen duen ekitaldiak ez argitaratzeaz, Kuadrillaren garrantziaz baizik, nork ordezkatzeko duen gorabehera, ez baitzaigu gehiegi axola.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako **14:07an**. Presidente andreak eta nik, behin-behineko idazkariak, sinatu dugu akta hau, eta nik idatzitako guztia egiaztatzen dut.

PRESIDENTEA: Stua.: Encina Castresana Astarloa

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA: Stua.: Gianfranco Ghiri Alonso

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE